



Geure mundutxoa

## **HABE Liburutegia: hizkuntzen didaktikan eta eleaniztasunean espezializatua**

*Imanol Irizar eta Oihane Oliveri*

*Hasiera-hasieratik esku hartu du HABE liburutegiak Zutaben eta Hizpiden. Lehendabiziko zenbakietan, esaterako, jasotako liburuen zein aldizkarien aipamenak eta laburpenak ematen ziren argitara. Oraingoan, berriz, liburutegiaren gaur egungo egoera aurkeztuko da; bereziki, azken urteotan zabaldutako bide berriak azalduko dira, baita landutako egitasmoak ere, Hizpide aldizkariko irakurleen jakingarri izan dadin.*

### **1. Historia pixka bat**

Laurogeigarren hamarkadaren lehen urteetan hasi zen HABE huts-hutsetik atontzen euskalduntzearen eta alfabetatzearen gaiak jorratuko zituen liburutegia. Apal batean euskara ikasteko metodoak eta materialak, gramatika eta hiztegi batzuk bestean, eta dozena-erdi bat liburu metodologiaz (Van Passel; De Grève, Bennett, Lado<sup>1</sup>); hori zen guztia. Azpimarratu behar da garai haietan handia zela sektorean zegoen formazio-beharra; ilusio, motibazio eta gogo faltarik ez zegoen, ez horixe, baina airean zegoen helduak euskalduntzeko saio handi hura modu egokian bideratzen lagunduko zuen profesionalen formazioa eta, jakina, prestakuntza lantzeko oinarritzko dokumentazioa ere ez zegoen eskura. HABE Liburutegia sektorea osatzen zuten bi milatik gora irakasle profesionalizatzeko ahaleginaren baitan sortu zen.

Horrela, bada, HABE erakunde sortu berriko teknikariak eta arduradunak eta, oro har, euskalduntze-alfabetatzeko sektoreko profesionalak ziren

liburutegi berri bat sortzeko proiektuaren jomuga; baina hasiera hartatik bertatik lurzoru zabalago batean jarri zituen oinak HABE Liburutegiaren egitasmoak. Honelaxe dio hitzez hitz HABEk 1982an argitaratu zuen memoria batean: *“Honenbestez euskara-irakasle, unibertsitari, ikertzaile eta abarrei ateak zabaldu nahi dizkie beren tesi, tesina, eta ikerlanetarako behar dituzten liburuak erraz eskura ditzaten”*. Orobat, Liburutegiaren esparruaren oinarri tematikoa “euskalduntze-alfabetatzea” izanik ere, ordurako, atal nagusi hauek guztiak agertzen dira arestian aipatu memorian: *“Glotodidaktika. Alfabetatzea. Adinekoen hezkuntza. Etengabeko hezkuntza. Psikolinguistika. Soziolinguistika. Elebitasuna. Talde-dinamika. Ikusentzungailuak...”*.

Denborak aurrera egin ahalean, –erakundearen teknikariek eta, oro har, sektoreak berak zituen formazio- eta informazio-beharrei erantzuteaz gain–, Liburutegiaren izaera publikoak erakarri zituen irakasle, ikerle, aditu eta herritar ugari, eta horrela joan zen osatzen pixkanaka gaur egungo Liburutegi publiko eta espezializatua, garai berrietara egokitzeko prozesu etengabea. Gaur egun, berrogei mila dokumentutik gora biltzen ditu, eta sei milatik gora erabiltzaile bazkidetu dira urteotan bere zerbitzuak baliatzeko.



## **2. Euskara hizkuntzen unibertsoan: euskararen didaktika eta eleaniztasuna**

Liburutegia osatzen hasteko unean, argi zegoen ez zela nahikoa euskara ikasteko eta irakasteko materialak biltzea. Gainera, garaiak eskatzen zuen euskara helduei irakasteko material berriak sortzea (ikus-entzunezko materialak, kasu), eta, horretarako, hizkuntza handiek (ingelesak eta frantsesak, batik bat) erabiltzen zituzten moldeak ezagutu eta aztertu behar ziren, atzerrian askoz ere aurreratua baitzebiltzan metodologia-kontuetan.

Hizkuntzak ikastea modan jarri zen (nagusiki, ingelesa), mundu osoan jende heldu asko hasi zen eginkizun horretan, eta, ondorioz, argitalpenen arloak goraldi ikusgarria izan zuen. Horrekin batera, indar handia hartu zuten hizkuntza nagusi horien irakasleen formaziorako liburu-bildumek, eta, hori dela medio, argitalpen berrien loraldi oparoa izan zuten hizkuntzen irakaskuntzak eta inguruko diziplinek: didaktikak, helduen hezkuntzak, ikus-entzunezkoek, soziolinguistikak, psikolinguistikak, elebitasunak, hezkuntza elebidunak...

Hogeita hamar urte hauetan, diziplina periferiko horiek hezuramaitzen eta sendotzen joan dira, erakunde, ikastetxe, unibertsitate eta argitaletxe askoren ingurumarietan egin diren esperientzien, ikerketen eta hausnarketan ondorioz. Gaur egun, itsaso zabala osatzen dute lau diziplina hauek –hizkuntzen didaktikak, soziolinguistikak, psikolinguistikak eta hezkuntza-sistema eleaniztunek–, eta horiexek gauzatzen dute liburutegi honen espezializazio-eremua.

Liburutegia hiru ataletan dago banatua:

### **1. Hizkuntzalaritza Aplikatua** (18.000 dokumentu)

Hizkuntzen didaktika, soziolinguistika eta psikolinguistika, eta hizkuntzek hezkuntza-sistematan duten tokia jorratzen dituzten dokumentuen atala. Hau da hiruretan atalik teknikoena eta zabalena. Zehazkiago, gaiok jorratzen dira:

- \* **Bigarren hizkuntzen didaktika:** hizkuntzen ikasketa eta irakaskuntzaren inguruko gaiak, hala nola programazioa eta ebaluazioa, metodo eta planteamenduak, irakasleen prestakuntza, aldagai psikologikoak (motibazioa, gaitasuna...), CLIL<sup>2</sup>, teknologia berriak, lau trebetasunak, hiztegia, ahoskera, xede berezietarako hizkuntza, teknikak, jokoak, abestiak, antzerkia...
- \* **Soziolinguistika:** munduko hizkuntzen egoera, munduko lurraldeen hizkuntz egoera, hizkuntz plangintza eta hizkuntz politika, elebitasuna eta diglosia, hizkuntz normalizazioa, hizkuntza minorizatuak, hizkuntz ukipena, hizkuntzen bizirautea, ordezkatzeta eta hiltzea, hizkuntzak eta legeak, hizkuntzak eta komunikabideak, hizkuntzak eta generoak, hizkuntzak eta klase sozialak, hizkuntzak eta erlijioa, hizkuntzak eta gazteak, hizkuntzak eta migrazioak...
- \* **Psikolinguistika:** haurren hizkuntza, hizkuntzaren jabekuntza, bigarren eta hirugarren hizkuntzaren jabekuntza, hizkuntzalaritza kognitiboa, biolinguistika, neurolinguistika, logoterapia...
- \* **Hizkuntzak hezkuntza-sistematan:** irakaskuntza elebiduneko eta hirueleduneko ereduak munduan, hizkuntzak unibertsitatean, immigrazioa eskolan...

### **2. Euskal Biblioteka.** 12.500 dokumentu.

Euskarazko ekoizpena biltzen duen atala: euskal literatura osoa eta, horrez gain, jakintzagai guztietan euskaraz argitaratutako gehientxoena.

Atal honen xedea da edozein jakintza-arlo euskaraz landu nahi duenari materialak eskura jartzea.

### **3. Material Didaktikoa.** 6.500 dokumentu.

Hizkuntzak ikasteko eta irakasteko metodo eta materialak biltzen dituen atala. Modu sakonean euskara ikasteko eta irakastekoak, baina, baita ere, hiztun asko dituzten hizkuntzak ikastekoak (ingelesa, frantsesa, gaztelania, portugesa, arabiera, italiera, alemana, txinera, japoniera, hindiera...) zein hizkuntza txikiagoetara hurbiltzeko materialak (katalana, galiziera, eskoziera, errumaniera, kroaziera, suediera, finlandiera, norvegiera, txekiera...).

### **3. Aurrez aurrekoa ez den erabilera helburu**

Izenburuak dioen bezala, gure helburua da HABE Liburutegiaren erabilera bultzatzea, baina begien bistakoa da aldatu egin dela erabiltzaileek bibliotekekin zuten harremana.

Interneten ezta edo eragin zuzena izan du azken urteotan ikerleek, irakasleek, teknikariek eta adituek dokumentazioa eskuratu eta kudeatzeko orain gutxi arte izan dituzten ohituretan. Izan ere, Internetek ekarri duen egoera berriaren ondorioz, behera egin du biblioteken erabilerak, eta arazo orokor eta estrukturala bihurtu da mundu osoan.

Bestalde, biblioteka espezializatuok berez daukagu desabantaila nabarmen bat udaletako eta unibertsitateetako liburutegiekin alderatuz gero, zeren eta azken hauek udalerrian edo campusean bertan baitituzte erabiltzaileak, biblioteka espezializatuok ez bezala, geografikoki gertu; gure kasuan, aitzitik, sakabanatuta daude erabiltzaileak.

Horrek guztiak, ordea, ez gaitu inolaz ere kikildu; alderantziz, akuilu izan da estrategia eta bide berriak jorratu eta finkatzeko, garai hauetara egokitzeko eta, beti bezala, zerbitzu onak eta azkarrak eskaintzeko, alde batera utziz erabiltzailea liburutegira etorri edo bere etxe edota bulegotik jardun duen.

Erabiltzaileen behar eta lan-molde berriei erantzun nahian, **aurrez aurrekoa ez den erabilera bultzatzea** izan da HABE Liburutegian azken lauzpabost urteotan lehenetsi dugun helburu nagusia, teknologia berriak erabiliz eta biblioteken sareetan parte hartuz edo sare berriak sortuz –hau da, Liburutegira gerturatu gabe jasotzea Liburutegiaren zerbitzuak–, eta helburu hau da etorkizunari begira lantzen ari garen egitasmoen ardatza.

### **4. Sareak**

Sareak ezinbesteko gertatzen dira baliabideak eta informazioa partekatzeko, eta erabiltzaileei zerbitzu egokiagoak eskaintzeko; baita Liburutegiaren erabilera bultzatzeko ere. Sarean lan egiteak dakartzan onurez sinetsita, hainbat saretan parte hartzeko bidea jorratzen ari da azkenaldi honetan HABE Liburutegia.

#### 4.1. Liburutegi-sareak

Esan bezala, gaur eguneko bibliotekak elkarrekin aritu behar dute lanean, zerbitzu zuzenagoak eta azkarragoak eskaintzeko. Jakina denez, erabiltzaileari berdin zaio non dagoen behar duen dokumentu hori, eta, horrezaz gain, ahalik eta azkarren eskuratu nahi izaten du. Horrela, sarean lan eginez, liburutegiak aukera du bere funtsetan ez dauden dokumentuak lortzeko, beste liburutegiari eta dokumentu-zentroei eskatuz; eta, halaber, elkarlana joan-etorrikoa denez, bere funtsak besteentzat eskuragarri jartzen ditu. Bibliotekoi dagokigu, beraz, denda-atzea antolatzea.

2012ko urriaz geroztik, *Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko* katalogoaren parte da<sup>3</sup> HABA Liburutegiaren katalogoa, Euskal Autonomia Erkidegoko udal-bibliotekak osatzen duten sarekoa. Sare honek katalogo bakarra du, eta LAM (Liburutegien Arteko Mailegua) zerbitzua eskaintzen du, zeina oso erabilgarria den. Zerbitzu honen bidez, bezeroek nork bere udalerriko liburutegiaren bidez ere eskura ditzake HABA Liburutegiko dokumentuak, gurera hurbildu beharrik izan gabe.

Bestalde, HABA Liburutegia zenbait liburutegi-saretako partaide da, eta lankidetzan aritzen da gainerako beste liburutegi eta dokumentazio-zentroekin:

- **REBIUN<sup>4</sup>**

Espainiako unibertsitateen biblioteken sarea da, Estatuko garrantzikoena, zalantzarik gabe. HABE Liburutegiak 2009az geroztik parte hartzen du erakunde elkartu gisa.

- **Biblioteka nazionalak eta unibertsitateetakoak**

Munduko biblioteka nazionalak eta unibertsitateetako bibliotekek gehienetan beren funtsak erabiltzeko aukera ematen dute, dela erreprografia-zerbitzuen bidez, dela liburuen maileguren bidez... Horrela, bada, biblioteka hauek dituzten baldintzak eta protokoloak betetzen ditugunok, berez, biblioteken mundu-mailako sarea osatzen dugu.

- **Biblioteka-lankideak**

Gertutasun fisikoagatik batzuetan edota tematikoagatik beste batzuetan, biblioteka espezializatuok lankidetzaharremanak josten ditugu beste biblioteka batzuekin, eta, zenbaitetan, egitasmo berberetan hartzen dugu parte lankidetzan. Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka, Lazkaoko Beneditarrena, Gasteizko Sancho el Sabio edo Kataluniako Generalitatearen Centre de Documentació de la Direcció General de Política Lingüística dira gure aspaldiko lankiderik finenak.

- **Worldcat<sup>5</sup> eta Dialnet<sup>6</sup>**

Gainera, munta handiko bi ekimen zehatzetan parte hartzeko bidea urratzen ari gara: *Worldcat* (mundu-mailako katalogo kolektiboa) eta *Dialnet* (estatu-mailako artikuluko zientifikoen hemeroteca erraldoia), kasu.

4.2. Talde  
profesionalekin  
harremanak saretzen

HABE Liburutegiak lantzen dituen gai-alor berberak ikertzen dituzten talde profesionalekin harremanak ehundu eta sakontzen ari gara, alde batera, gure funtsen erabilera bultzatzeko eta, bestera, zerbitzu azkar eta doituak eskaintzeko. Hitzarmenaren formula erabili izan dugu, lankidetzahoriek zehaztu eta finkatzeko.

Bost erakunde, talde edo ikergune hauekin sinatu ditugu hitzarmenak:

- **Joanes Etxeberri Egitasmoa (Euskararen historia soziala) – Euskaltzaindia**

2009ko apirilean sinatu zuten hitzarmena HABEk eta Euskaltzaindiak. Hitzarmen honen arabera, HABE Liburutegiak *Joanes Etxeberri Egitasmoak* arlo dokumentalean dituen beharrei erantzuteaz arduratuko da; betiere, behar horiek Liburutegiak finkatuta daukan eremukoak baldin badira.

Hitzarmenak onura besterik ez du ekarri; batetik, egitasmo honetako ikerlariak azkar asko jaso izan dituztelako eskatu dizkiguten liburu eta artikuluko andana –ahal izan denean, modu digitalean gainera– eta, beste-

tik, HABE Liburutegiak goi-mailako zerbitzuak eskaintzeko gaitasuna erakutsi duelako urte hauetan guztietan, bere funtsak ikerlarien esku jarri eta bertan ez dituen dokumentuak beste liburutegien bidez lortuz.

Lankidetzak honek, gainera, izan du bestelako emaitzarik ere: *Euskararen historia soziala (EHS): argibide bibliografikoak: lehen emanaldia* liburuaren argitaratzea, hain zuzen. Beste liburutegi batzuen artean, HABE Liburutegiaren funtsak erabili dituzte lana burutzeko, neurri esanguratsuan erabili ere.

Horrela, bada, 2009an Euskaltzaindiarekin egin bezala, beste lau erakundeekin sinatu zituen hitzarmenak HABEK, 2011ko abenduaren 16an:

- **IKER - Centre de recherche sur la langue et les textes basques**<sup>7</sup>

Euskal ikasketen alorrean frantziar estatuan dagoen egitura espezializatu bakarra.

- **Soziolinguistika Klusterra**<sup>8</sup>

Ezagutza soziolinguistikoaren ikerketan, zabalpenean eta aplikazioan dihardu. Euskal Herrian hizkuntza-normalizazioaren prozesuan inplikaturik dauden erakunde eta taldeentzat arlo zientifiko-aplikatutik datuak, metodologiaketa bestelako materialak eskaintzeko egitasmoak lantzen ditu.

- **Mintzola Fundazioa**<sup>9</sup>

Euskararen ahozko tasunaren ikergunea.

- **HIZNET – Hizkuntza Plangintzako graduondokoa**<sup>10</sup>

Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioak kudeatzen duen online ikastaroa soziolinguistikaz.

Aurrera begira, bide berean sakontzeko asmoa dugu, erakunde eta ikergune gehiagorekin hitzarmenak sinatuz.

## **5. Zerbitzuak**

Lehentxeago adierazia dugu aurrez aurrekoa ez den erabilera sustatzea dela HABE Liburutegiak azken urteotan lehenetsi duen helburua, eta, jakina, horrek zerbitzu berezituak antolatzea eraman gaitu.

Hala ere, hor diraute indar betez Liburutegira bertaratzen direnek jasotzen dituzten ohiko zerbitzuak, hau da, aurrez aurrekoak; besteak beste, maileguaren ingurukoak (mailegatu, itzuli, epea luzatu, erreserbatu...), katalogoa, fotokopiatzeko/eskaneatzeko aukera, artikulua USB memoriara edo pen drivera jaistekoa, bilduma osoa eskura edukitzea, buruz buruko kontsultak egitekoa...

Dena dela, informazioaren uholdeak eta teknologia berriek definitzen dute gaur egungo gizartea, eta horien ondorio da liburutegietako erabiltzaileek beren ordenagailuetan jaso nahi izatea ahalik eta zerbitzurik gehien, beren etxetik/bulegotik mugitu gabe.

5.1. *Alertak* Zerbitzu honen bidez, HABE Liburutegiko erabiltzaileei aukera ematen zaie e-postaz jasotzeko Liburutegiak harpidetzan dituen aldizkari zientifikoen (asko eta asko, formatu elektronikoa) azken zenbakien alertak (aurkibideak, alegia); eta, jasotako aurkibide horietan intereseko artikulurik topatuz gero, artikulua pdf formatuan jaso daiteke.

Zerbitzu honek bete-betean egiten du bat biblioteka espezializatuen helburuetako batekin: informazioaren banaketa selektiboarekin, alegia. Horrela, erabiltzaileak soilik jasotzen ditu interesatzen zaizkion aldizkarien alertak, eta, horietatik, bakar-bakarrik bere intereseko artikulua. Era horretara, ezin hobeki saihesten da gaur egungo arazorik larrienetako bat, hots, gehiegizko informazioak sortzen duen itomena.

5.2. *Liburu berriak RSS bidez*<sup>11</sup> Gutxi gorabehera, urtero, 1.500-1.800 dokumentu berri (liburu, DVD, artikulua, baliabide elektronikoa...) sartzen da liburutegian, eta horien guztien berri (osorik edo atalka) RSS bidez jaso daiteke<sup>12</sup>.

5.3. *Interneteko baliabideen kudeaketa* Dudarik gabe, goranzko bidea hartu dute aspaldi samarretik Interneten dauden baliabideak. Eta guk bi bide erabiltzen ditugu, gure interesekoak diren Interneteko baliabideok kudeatzeko eta gure erabiltzaileentzat eskuragarri jartzeko:

- 1 Webguneak *Delicious* izeneko zerbitzuan jaso eta antolatzen ditugu. Une honetan, 230 ditugu, eta gure zerbitzuaren bidez kontsulta daitezke<sup>13</sup>. Honako alor hauekin zerikusia duten webguneak dira: hizkuntzen didaktika, eleaniztasun, hizkuntzen egoera, euskararen ikasketa eta irakaskuntzarekin...
- 2 Artikulua, liburuak, tesiak, aldizkariak..., berriz, katalogatu egiten ditugu, eta katalogoaren bidez kontsulta daitezke: URLa<sup>14</sup> jartzen dugu erabiltzaileak zuzenean dokumentura jotzeko aukera izan dezan.

5.4. *Aldizkari elektronikoa* HABE Liburutegiak 667 aldizkari osatutako bilduma du. Aldizkari gehienak liburutegiak jorratzen dituen gai teknikoaren ingurukoak dira: hizkuntzen didaktika, soziolinguistika, psikolinguistika, etab. Horrez gain, bigarren multzo batean biltzen dira edozein gairen inguruan euskaraz argitaratutako lanak.

Gure bildumako aldizkari batzuk modu elektronikoa ere kontsulta daitezke, eta guk sarbide elektronikoa hori eskaintzen diegu erabiltzaileei. Batzuen kasuan ("sarbide mugatua" oharra dutenak), HABE Liburutegiko ordenagailuetatik bakarrik kontsulta daitezke artikuluetako testu osoak, Liburutegia harpidetzaren bidez heltzen baita eduki digital horietara. Gainerako guztiek dute sarbide librea Interneten.



5.5. *HABE*  
*Liburutegiko gidak*

*Euskara: irakurgai mailakatuak, 2013* gida<sup>16</sup> sortu da aurten, baina ez da lehendabizikoa. Honen aurretik beste hiru gida sortu ditugu Liburutegian 2011. eta 2012. urteetan. Hauek, hain zuzen:

- *Mundua bete hitz: hara eta hona ibiltzeko elkarrizketa-gidak*, 2011
- *Frantsesa ikasi / frantsesa irakatsi*, 2011
- *Filmak: zenbait hizkuntzatan ikusteko*, 2012

Lehen hiru gidak osatzeko, Liburutegian genituen elkarrizketa-gidak, frantsesa ikasteko eta irakasteko materialak eta hainbat hizkuntzatan ikus daitezkeen filmak izan genituen oinarri. Laugarrenak, ordea, lanketa berezia eskatu digu; izan ere, irakurgai askoren artean zegoen aukeratu beharra eta lan hori egiteko lankidetzaren bidetik jotzea deliberatu genuen. Irakurleen artean estimaziorik handiena duten irakurgaiak aukeratu nahi genituen, dela gaiagatik, dela luzeragatik edota dela kontatzen den istorioagatik.

Hala, oso lagungarri gertatu zaigu, eta lan hau egiteko abiapuntu izan ditugu Legazpiko Udal Euskaltegiak eta Maizpide barnetegiak, besteak beste, gure esku jarri dituzten liburu-zerrendak. Horiek egokitu, ordenatu eta osatu egin ditugu, beste hainbat erreferentzia erantsiz. Elkarrekin jardun dugu *HABE* Liburutegiko eta *HABE*ren Didaktika Zerbitzuko Materialgintza Ataleko lankideak; halaber, lagungarria izan da Curriculum Garapenaren Atalaren ekarpena.

Gida irekia egin nahi izan dugu, eta iradokizunak gogo onez jasoko dira. Edonola ere, kontuan izan gida honen web-bertsioa egongo dela, erreferentzia berri bat dagoen bakoitzean eguneratua.

## 5.6. Webgunea



HABE LIBURUTEGIA



### Zergatik zatoz liburutegira?

**Sho Hagio**  
Sho Hagio irakasle japoniarra HABE Liburutegian



Ikusi gehiago >

HABE Liburutegia biblioteka espezializatu eta publikoa da, 40.000 bat dokumentu eta 667 aldizkari biltzen dituena, hainbat euskarritan.

#### Espezializazio-eremua

HABE Liburutegiak eleiaztasuna du ardatz nagusi. Hizkuntzen alde didaktiko, soziologiko, psikologiko eta hezkuntzari buruzkoak jorratzen ditu, arreta berezia eskainiz euskarari eta Euskal Herriko egoera lingustikoari.

#### Katalogoan bilatu

#### Ordutegia

Astelehen, astearte\*, asteazken eta osteguna: 8:30-15:00  
Ostirala: 8:30-14:30

\*OHARRA: Erabiltzaileen eskariz astearte ordutegia 18:30ak arte luzatzeko aukera dago. Horretarako eskaria egin beharko da aurreko ostiraleko 13:00ak baino lehen.

#### Udako ordutegia (ekaina, uztaila, abuztua, iraila)

Astelehenetik ostiralera: 8:30-14:30

#### Harremanetarako

HABE Liburutegia  
Vitoria-Gasteiz, 3 4.a  
20018 Donostia-San Sebastián  
943-022602 / 943-022604  
liburutegi@habe.org



#### Nire kontua

E-posta:

Pasahitza:

Erabiltzailea sortu  Pasahitza ahaztu zaitzu?

#### Interesatzen zaitzu

- Bazkidetu zaitez >
- Liburutegiaz >
- Katalogoari buruz >

#### Gure zerbitzuak

- Eskuratu berriak >
- e-aldizkariak >
- Alertak >
- Mailegua >
- Delicious >
- Gidak >
- Beste zerbitzuak >

#### Praktikak

Dokuteka  
Atazak  
Maila-probak  
Jolasan  
Pixkanaka

#### Baliabideak

Eskuliburuak  
Ik-astaroak  
Hizkuntza-arauak  
Estekak  
Aldizkariak

#### Euskaltegiak

#### HABE Liburutegia

Katalogoa  
Gure zerbitzuak  
Eskuratu berriak

#### Berri eta Gertakizunak

Agenda  
Berriak  
HABE Berriak

#### Ezagutu IKASBIL

Kontakua  
FAQ  
Tradiziozuna  
Eskaerak  
Laguntza

Iaz berriren genuen webean agertzen da gure zerbitzuen inguruko informazioa eta, oro har, liburutegiari buruzko informazio osoa.

## **Oharrak**

### 1. Hurrengo hauek dira liburuak:

Bennett, W. A. (1975): *Las lenguas y su enseñanza*. Madrid: Cátedra.

De Grève, M.; Van Passel, F. (1971). *Lingüística y enseñanza de lenguas extranjeras*. Madrid: Fragua.

HABE (1982). *HABE; 1982-83 ikasturtea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.

Lado, R. (1973): *Lingüística contrastiva: lenguas y culturas*. Madrid: Alcalá.

Van passel, F. (1973): *Enseñanza de idiomas a los adultos*. Madrid: Fragua.

### 2. CLIL *Content and Language Integrated Learning*; alegia, edukien eta hizkuntzaren ikaskuntza integratua.

### 3. [www.euskadi.net/katalogobateratua/](http://www.euskadi.net/katalogobateratua/)

### 4. <http://www.rebiun.org/>

### 5. <http://www.worldcat.org>

### 6. <http://dialnet.unirioja.es>

### 7. <http://www.iker.cnrs.fr/?lang=eu>

### 8. <http://www.soziolinguistika.org>

### 9. <http://www.mintzola.com>

### 10. <http://hiznet.asmoz.org/>

### 11. <http://www.ikasbil.net/web/liburutegia/liburu-berriak/>

### 12. RSS (Really Simple Syndication) albisteak hedatzeko formatua da; informazioa ordenagailuan jasotzeko, formatu hori irakurtzen duen edo gehitzen duen gailua instalatu baino ez duzu egin behar.

### 13. <http://delicious.com/habeliburutegia>

### 14. formatu estandar bat betetzen duen karaktere-katea, Interneten dokumentuak eta irudiak bezalako baliabideak izendatzeko balio duena.

### 15. <http://www.ikasbil.net/web/liburutegia/liburutegialdizkariak>

### 16. <http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/irakurgai-mailakatuak>